

OPE
2007



2007ko
LEP

KODEA Lanpostua/k:

A-5039

HAUTAKETAKO G.T.

1. ariketa. 2. proba

TEST GALDERAK

Galderak: 60.

Denbora, gehienez: 75 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Gogoan izan:
 - o Asmatuak: 1,00
 - o Hutsegiteak: - 0,33
 - o Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: - 0,00
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez ahaztu orri horia eta argibide-orria zeurekin eramatea.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

- 1. Tokiko Gobernuaren eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen arabera, nori dagokio langileak hautatu eta lanpostuak hornitzeko deialdien oinarriak onestea?**
-
- A Alkateari
B Tokiko Gobernu Batzarrari
C Funtzio Publikoaren Irizpen Batzordeari
D Udaltzaren osoko bilkurari
- 2. Estatuko administrazio orokorreko funtzionarioen diziplina erregimenaren araudiaren arabera, zenbat denboraren buruan preskribatzen dira arau-hauste oso larriak?**
-
- A 10 urte
B 5 urte
C 6 urte
D 4 urte
- 3. Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, funtzionarioei dagozkien aurrekontuko plantillek honako kontzeptu honen arabera ordenatuta zerrendatuko dituzte kreditu- zuzkidurak:**
-
- A Lanpostua dela eta salgaietan emango zaizkien ordainsariak
B Zerbitzu bereziengatik emango zaizkien ordainsariak
C Berariazko osagarriak, lanpostuek halakorik esleiturik dutenean
D Osagarri pertsonalak
- 4. Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, hautatze probetarako deialdia egin ahal izango da lanpostuak betetzea(k)...**
-
- A antolakuntzaren beharrei erantzuten dienean bakarrik
B premiazko izaera duenean
C sindikatuen ordezkariekin adostua dagoenean
D Lan Eskaintza Publikoan hitzemandako dagoenean
- 5. Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, euskal administrazio publikoaren zerbitzura funtzionario edo lan-kontratuko langile finko gisa jardungo dutenak hautatzeko probetarako deialdiek ezinbestean beren baitan jaso beharra daukate...**
-
- A lanpostu zerrendan hutsik dauden lanpostuen kopurua
B eskaintzen diren lanpostuen ordainsariak
C eskaintzen diren lanpostuen destino-osagarriak
D epaimahaiaren edo hautatze organo teknikoaren osaketa
- 6. Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, barne sustapenerako erreserbatutako lanpostuak hutsik geratzen direlarik Lan Eskaintza Publikoan...**
-
- A hurrengo Lan Eskaintza Publikorako utziko dira
B txanda irekian eskaintakoei gehituko zaizkie
C amortizatu egingo dira lanpostu zerrendan
D bitarteko langileekin beteko dira
- 7. Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, sistema hauen bitartez beteko dira funtzionarioentzat erreserbatuta dauden lanpostuak:**
-
- A azterketa eta izendapen librea
B lehiaketa eta izendapen librea
C lehiaketa eta azterketa
D azterketa eta lan eskaintza publikoa
- 8. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan Euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 dekretuaren arabera, derrigortasun datatik aurrera...**
-
- A hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa da
B hizkuntza eskakizuna borondatezkoa da
C lanpostuari hizkuntza eskakizuna esleitzen zaio
D lanpostuari kendu egiten zaio hizkuntza eskakizuna

- 9. Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legeak adierazten du enplegu-zerbitzuek honetara zuzendutako neurriak har ditzatela sustatuko dutela euskal administrazio publikoek:**
-
- A Emakume gutxi izan ohi diren lanbideetan kontratatutako emakumeen kopurua handitu dadila lortzera.
B Gehiengo diren taldeetan gizonezkoenaz gaindiko ehunekoa lortzera.
C Enplegu publikora sartzeko probak egokitzera, genero ezberdintasunak aintzat harturik.
D Beti emakumearen alde egitera, administrazio publikoetan sartzeko hautatze probetan puntuazio berdinketarik gertatuz gero.
- 10. Gasteizko Udaleko Funtzionarioen Lan Baldintzak arautzen dituen Hitzarmenaren arabera, genero indarkeriaren biktima diren langile publikoek eskubidea dute...**
-
- A lanlekua etxetik ahalik eta urrunenera aldatzeko
B lanlekua beste administrazio lokal batera aldatzeko
C lanlekuz aldatzeko, ahal den neurrian
D lanlekua aldatzeko, salaketa egin bezain laster
- 11. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunikatu ahal izango zaizkio, interesdunaren oniritziarik gabe...**
-
- A Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoaren Sailak onesten badu
B erroldari dagozkion datuak badira
C babes handiko fitxategietan jasotako informazioari eragiten ez badiu
D administrazio publikoen artean egiten bada eta datuak helburu historikoekin tratatzea badu helburu
- 12. Gasteizko Udaleko Aldi baterako Kontratazioetarako Zerrendak Kudeatzeko Araudiak baldintza hau jartzen du zerrendetan parte hartu ahal izateko:**
-
- A 16 urte beteta edukitzea
B 18 eta 70 urte bitartekoa izatea
C Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea
D INEMek emandako langabe-txartela edukitzea
- 13. Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren urriaren 14ko 241/2003 Dekretuaren arabera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) helburu hau du:**
-
- A atzerriko antzeko beste erakunde batzuekiko elkartrukeak ezartzea
B udaletako hautatze epaimahaiak izendatzea
C toki erakundeetako hautatze probak prestatzea
D udalen lan eskaintza publikoen deialdien oinarriak egitea
- 14. Instituto Nacional de Empleo (INEM) erakundearen egitura organikoa zehaztu zeneko ekainaren 6ko 1.458/1986 Errege Dekretuaren arabera, hau da horren zereginetako bat:**
-
- A oro har, enplegu betera zuzendutako politika aktibora daraman ekintza oro
B toki erakundeetako aldi baterako kontratazio zerrendak eskaintzea
C toki erakundeetako hautatze epaimahaietan parte hartzea
D administrazio publikoetako hautatze epaimahaietako buruak izendatzea
- 15. Hauxe da LANBIDE erakundearen funtsezko zeregina:**
-
- A label etiketa duen ganadua ekoiztea
B nekazaritza ekologikoan pestiziden erabilera kontrolatzea
C laneratze politikak integratzea
D EAEko langileen lanerako prestakuntza
- 16. Hauxe da OSALAN erakundearen funtsezko zeregina:**
-
- A EAEko langileen etengabeko prestakuntza
B EAEko langileen laneratzea
C agiritik gabeko atzeritarren osasuna
D langileen osasuna eta segurtasuna sustatu eta prebenitzea

17. Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenerako Saila(k)...

- A soldata soziala jasotzen dutenak laneratzeko lan egiten du
- B udal enpresen kudeaketaz arduratzen da
- C erakunde autonomoa da
- D udal zergak kudeatzen ditu

18. Hauxe da Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenerako Sailaren egitura organikoak bere baitan hartzen duen zerbitzuetako bat:

- A Merkataritza Zerbitzua
- B Kontsumo Zerbitzua
- C Zerga Zerbitzua
- D Bizikletak Mailegatzeko Zerbitzua

19. Udaleko Funtzio Publikoaren Saila honetaz arduratzen da:

- A giza baliabideen kudeaketa
- B erakunde-protokoloa
- C zerbitzu orokorrak
- D zeharkako zerbitzuak

20. Udaleko Funtzio Publikoaren Sailak ez du eskumenik honako honetan:

- A nominen kudeaketa
- B ordu kontrola
- C lan-egutegiaren negoziazioa
- D TUVISA hiriko autobus enpresako langileak

21. Hauek dira Gasteiz udalerriko auzotar batek balia ditzakeen enplegu zerbitzu publikoak:

- A INEM, ETXELAN eta Udaleko Gizartegintza Saila
- B INEM, EGINLAN eta Udaleko Enplegu Saila
- C INEM, EGAILAN eta Udaleko Funtzio Publikoaren Saila
- D INEM, EGAILAN eta Udaleko Ekonomia Sustapenerako Saila

22. Europako Enplegurako Estrategiaren (EEE) zutabeetako bat hauxe da:

- A Europan langabezia tasa intermodala % 3ra murriztea, 2012. urterako
- B komunitateko herrialdeen arteko langile trukea globalizatzea
- C harrera-herrialdean 5 urte baino gehiago daramaten legez kanpoko etorkinei enplegurako sarbidea erraztea
- D gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren alorreko politikak sendotzea

23. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren arabera, langabezia prestazioak...

- A asistentzia mailakoak dira
- B kontribuzio mailakoak dira
- C kontribuzio eta asistentzia mailakoak dira
- D ez dira ez kontribuzio mailakoak ez asistentzia mailakoak

24. Praktikaldiko kontratuak ezinbestean eskatzen du...

- A ikasketak bukatu zirenetik 2 urte baino gehiago ez igaro izana
- B lizentzia, diploma edo lanbide prestakuntzako titulazioa edukitzea
- C 21 urte baino gehiago eta 32 baino gutxiago izatea
- D prestakuntza zikloan egindako azken ikasturteko gai guztiak gaindituak izatea

25. Laneratzeari zaila dutenen taldeetako bat hauxe da:

- A emakumeak
- B iragaitzakoak
- C artearen historian lizentziatuak
- D titulaziorik gabeko gazteak

26. Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, gaitasun berdintasuna izanez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeak ondorengo ehunekotik behera diren administrazioako kidego, eskala eta kategorietan:

- A % 30
- B % 25
- C % 40
- D % 45

27. Gaurdaino pilatutako ikerketaren arabera, entrenamendu sistematikoak areagotu egiten du errendimendua...

- A test proiektiboetan
- B nortasun testetan
- C adimen testetan
- D test faktorialetan

28. Nori zuzendua dago lanerako prestakuntza?

- A eskola sistema arautuko ikasleei
- B aktibo dauden langileei
- C ezinduei
- D langabeei

29. Nori zuzendua dago prestakuntza iraunkorra?

- A eskola sistema arautuko ikasleei
- B aktibo dauden langileei
- C ezinduei
- D langabeei

30. Hauxe izan daiteke enplegu/prestakuntza programa bat:

- A lanbide heziketako ikastegi bat
- B arte eta lanbide eskola bat
- C txanda-kontratu bat
- D eskola/lantegi bat

31. A-(E/n-1) zuzenketa-formula proba hauei aplikatzen zaie:

- A objektibo
- B garapeneko
- C galdetegiei
- D jendetsuei

32. “work sample tests” direlakoak honetan oinarritzen dira: etorkizuneko lanbide-jokaeraren iragarlerik hobereana...

- A hautagaiaren lanbide-iraganean izandakoa da
- B modu anonimoan, dena delakoak jakin gabe erregistratua da
- C hautagaiari ezagun zaizkion egoeretan izandakoa da
- D lanekoaren antzeko egoeretan izandakoa da

33. Aldi berean honako hauek esku-hartzea da “panel elkarrizketaren” ezaugarri:

- A hainbat elkarrizketatzaile eta elkarrizketatu bakarra
- B hainbat elkarrizketatu eta elkarrizketatzaile bakarra
- C hainbat elkarrizketatu eta hainbat elkarrizketatzaile
- D elkarrizketatu bakarra eta elkarrizketatzaile bakarra

34. “Elkarrizketa konduktual egituratua”ren jarduera orokorrerako irizpide-balioetan buruz egindako azterlan enpirikoen arabera, hauen artean kokatzen dira koefizienteak:

- A 0,15 eta 0,23
- B 0,44 eta 0,60
- C 0,64 eta 0,83
- D 0,72 eta 0,91

35. “Gertakari kritikoen teknika” hautatze elkarrizketa honen oinarri da:

- A konbentzionala
- B konduktuala
- C panelekoa
- D multimodala

36. OTIS Soila (OS) testak, funtsean, hauxe neurtzen du:

- A Adimen orokorra
- B Adimen jarioa
- C Adimen kristalizatua
- D Ahozko adimena

37. Toulouse-Piéronek (TP) testak, funtsean, hauxe neurtzen du:

- A arrazonamendu abstraktua
- B Ikusmen/mugimen koordinazioa
- C Gaitasun mekanikoak
- D Arreta fokalizatua

38. Jarduera iragartzeari dagokionez, hauxe da “Big Five” direlakoen faktorerik indartsuena:

- A kanporakoitasuna
- B buru irekitasuna
- C kontzientzia
- D egonkortasun emozionala

39. Hauxe ebaluatzeko diseinatutako test bat da SOSIA:

- A mugimen trebetasunak
- B gaitasunak
- C informatikarako trebezia
- D adimen numerikoa

40. “in-basket” teknikak, bereziki, honetan baliatzen dira:

- A 360º ebaluazioa
- B gaitasunen ebaluazioa
- C assessment centerrak
- D jardueraren ebaluazioa

41. Hauek dira lan eskaintza publikoa gidatu behar duten funtsezko printzipioak:

- A berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta publikotasuna
- B berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta zintzotasuna
- C zintzotasuna, merezimendua, publikotasuna eta kurrikulua
- D kurrikulua, gaitasuna, merezimendua eta zintzotasuna

42. Nahikoa arrazoi da epaimahaiko kide bat errefusatzeko...

- A lehiakideren bat ezagutzea
- B lehiakideren baten irakasle izatea
- C lehiakideren baten zerbitzu berean lan egitea
- D lehiakideren batekin ageriko etsaitasuna edukitzea

43. Epaimahaiaren erabakien kontra, administrazioarekiko auzi-bidera jo aurretik, errekurtsio hau aurkez daiteke:

- A berrikusteko errekurtsioa
- B gora jotzeko errekurtsioa
- C egite errekurtsioa
- D errekurtsio arrunta

44. Probak prestatzerakoan isilekotasuna gordetzearen inguruan HAEK egindako gomendioen arabera, prestatzaileen identitatea jasoko da aktetan...

- A prestatu dituen nornahi izanik ere
- B kanpoko aholkulari edo enpresek egiten dituztelarik
- C epaimahaiko kideek egiten dituztelarik
- D prestatzaile bat baino gehiago izan bada

45. Boyatzisen arabera (1982), gaitasun bat...

- A ezaugarri gainerakorra da
- B indarreko ezaugarria da
- C ezaugarri latentea da
- D azpiko ezaugarria da

46. Mitrani, Dalziel eta Suárez de Pugaeren arabera (1992), zenbat multzotan biltzen dira gaitasunak?

- A 4 multzotan
- B 3 multzotan
- C 5 multzotan
- D 6 multzotan

47. Pereda eta Berrocali jarraiki (1999), gaitasunak...

- A portaera latenteak izan daitezke
- B portaera hautemangarriak izan daitezke
- C albo-portaerak izan daitezke
- D portaera ikasiak izan daitezke

48. Le Boterfek adierazten du (1991) ezen, egoerazko tekniken baitan, non hautagaiek beren gaitasunak frogatu behar baitituzte, honako hauek daudela:

- A ezagutzei dagozkienak
- B profesionalak
- C simulaziozkoak
- D psikologikoak

49. Gasteizko Udaleko gaitasunen arabera prestakuntzari buruzko azterlanean, zenbat funtzio talde identifikatzen dira?

- A 9 funtzio talde
- B 8 funtzio talde
- C 7 funtzio talde
- D 6 funtzio talde

50. Lanpostuak baloratzeko teknika klasiko ezagunenetako bat hauxe da:

- A erradiala
- B multimodala
- C alde bikoia
- D faktoriala

51. "Jardueraren ebaluazioak" honi egiten dio erreferentzia:

- A zereginari
- B testuinguruari
- C orokortasunari
- D aurreko guztiei

52. Zeregin hauek egitearekin zerikusia duten jokaerei egiten die erreferentzia "zeregin-jarduerak":

- A formalki lanposturi esleitu gabeei
- B formalki lanposturi esleituari
- C lanpostuan ohikoen direnei
- D lanpostuan garrantzitsuen direnei

53. Zeregin hauek egitearekin zerikusia duten jokaerei egiten die erreferentzia “testuinguru jarduerak”:

- A ebaluatuarengandik hurbilen dauden lanpostuetakoei
- B formalki lanposturi esleitu gabeei
- C formalki lanposturi esleituei
- D lanpostuko konplexuenei

54. “5S” teknikan oinarritutako kalitate programak, funtsean, honetara zuzendutako programak dira:

- A prozesuen analisira
- B zerbitzu kartak egiteari
- C ordena eta garbitasunari
- D arriskuen prebentzioari

55. “Talde nominalako teknika” maiz erabiltzen da honetarako:

- A soldatak esleitzeko
- B langileen administraziorako
- C langileen hautaketarako
- D talde lana ekoizteko

56. Aukera hauetatik zein ez da gatatzak konpontzeko teknika klasiko bat?

- A animazioa
- B arbitrajea
- C bitartekaritza
- D kontziliazioa

57. Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, langileek prebentzioaren alorreko betebeharrak ez betetzea...

- A lana ez betetzetzat joko da
- B arau-hauste arintzat joko da
- C arau-hauste larritzat joko da
- D diziplina arau-haustetzat joko da

58. Komunikazioari gagozkiolarik, “zarata” deitzen diogu honako honen gainean eragiten duten artefaktu disfuntzional orori:

- A igorlearen gainean
- B hartzaillearen gainean
- C kodifikatzailearen gainean
- D aurreko guztien gainean

59. Piñuelen arabera (2001), “mobbing”a jasaten duen pertsonaren suntsipen psikologikoa gerta dadin bete behar diren oinarritzko hiru baldintzak hauek dira:

- A biktimaren lotsa, asertziorik eza eta lekuko mutuak
- B ekintzaren sekretua, biktimaren lotsa eta lekuko mutuak
- C lekuko mutuak, asertziorik eza eta aginte hierarkikoa
- D aginte hierarkikoa, biktimaren lotsa eta ekintzaren sekretua

60. Piñuelen arabera (2001), antolakuntzaren erantzun-joera, jazarpenaren aurrean, hauxe da:

- A ukapena
- B esku-hartzea
- C ikertzea
- D baieztapena